

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroan egingo da Ikas Komunitateen Nazioarteko VIII. Topaketa

Eredu hezitzaile honi buruz Madrilen berriki ospatu diren jardunaldietan iragarri da

Ostirala, 2018.eko azaroak 30

Madrilen egin berria den [Ikas Komunitateen Nazioarteko VII. Topaketan](#), hurrengo topaketa Nafarroan izango dela iragarri dute.

Ikas Komunitateak hezkuntza eta eraldaketa soziala bilatzen duten hezkuntza-jarduera arrakastatsuetan oinarritutako proiektua da. Hezkuntza-ereduak bat egiten du nazioarteko teoria zientifikoekin; alegia, egungo gizartean ikasteko funtsezko bi faktore nabarmentzen dituzte: elkarreragiteak eta parte-hartzea komunitatean.

[Ikas Komunitateen](#) egiturak eta kontzeptuak oinarri zientifiko oso solidoa dute, 30 urtetik gorako ikerketan garatua, eta, gaur egun, herrialde ezberdinetako eta ezagutzaren arlo desberdinetako 70 espezialista baino gehiagok osatzen dute taldea.

Kontzeptuaren funtsa Europako Batzordeak garatutako [INCLUD-ED Proiektuaren](#) ondorioek berresten dute, desberdintasunak gaintzen eta ikasteko emaitzak hobetzen laguntzen duten hezkuntza-estrategiak identifikatzeko eta aztertzeko, hain zuzen ere.

Analisiaren bitartez, Hezkuntzako zenbait jarduera arrakastatsu identifikatu ziren; hots, hezkuntzan egiaz emaitza onenak eman dituzten praktikak eta nazioarteko komunitate zientifikoaren abala dutenak. Hezkuntzako jarduera arrakastatsu horiek unibertsalak izateak bereizten ditu, testuinguru ezberdinetan emaitza onenak erakutsi baitituzte.

Ikas Komunitateak Nafarroan

Nafarroan, jada 10 ikastetxe Ikas Komunitate bilakatu dira. Pilotatzea 2016/17 denboraldian hasi zen programa-kontratu deialdiarekin, eta 12 ikastetxera iritsi zen. Ikuspegi inklusiboarekin, ikastetxeak eraldatzeko pilotatzearen barnean 2017/18 ikasturtean 24 ikastetxek parte hartu zuten; egun, berriz, 40 ikastetxe izatera iritsi dira HEZIGARRI Nafarroa – PROEDUCAR Navarra bertsioarekin. Ikastetxe horietatik, lehen Ikas Komunitate bezala funtzionatzen zuten beste 3 ikastetxek gain (Mendigorriako José María Espinal Olcoz HLHIP, eta Iruñako Doña Mayor HLHIP eta García Galdeano HLHIP), beste 7 ikastetxek egin dute eraldaketa-prozesuaren aldeko apustua, pilotatze honetan parte hartu ondoren: Beteluko Araxex HLHIP, Iturmendiko Arrano Beltza HLHIP, Olaztiko Domingo Bados HLHIP, Lekunberriko Ibarberri HLHIP, Eloko Santa Barbara HLHIP, Urdiaingo HLHIP eta Berako Jesusen Bihotza HLHIP.

Sare-komunitate horietako ikastetxeak III. Topaketan bildu dira aste

honetan. Nafarroari begira ari dira lanean, baina gainerako komunitateetan zer egiten ari diren alde batera utzi gabe. Horretarako, aukera onena datorren 2019/20 ikasturtea izango da, Ikas Komunitateen Nazioarteko Topaketa hemen, Nafarroako Foru Komunitatean, egingo baita.